


Armanak Uskara


edo

Ziberouko Egunaria

1911 gerren ourtheke



*Jinkoa eta Herria !
Zuhurtarzuna eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o !*



Parisen

L. DE SOULLE enian

Vaugirard-eko karrikan, 58^{an}.



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
- ☾ " Argizagi azken laordena.
- " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- ☽ " Argizagi lehen laordena.

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *baranthaila* 12^{an}; — HAOSTE, *martcho* 1^{an}; — BAZKO, *aphirila* 16^{an}; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 22^{an}, 23^{an} eta 24^{an}; — SALBATORE, *maiatze* 25^{an}; — PHENTEKOSTE, *arramaiatze* 4^{an}; — BESTABERRI, *arramaiatze* 15^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *abentu* 3^{an}.

LAOR THENPORAK :

Baranthaila 8 ⁿ , 10 ⁿ eta 11 ⁿ .	}	Buruila 20 ⁿ , 22 ⁿ eta 23 ⁿ .
Maiatze 7 ⁿ , 9 ⁿ eta 10 ⁿ .	}	Abentu 13 ⁿ , 15 ⁿ eta 16 ⁿ .


EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Ekhi itzaltze osoa *aphirila* 28^{an}, ikhousiren eztena Uskal Herrian; — argizagi ulhuntze phartezkoa *maiatze* 12^{an}; — ekhi ulhuntze phartezkoa *urrieta* 12^{an}; ezte ikhousiko goure Herrian; — argizagi itzaltze phartezkoa *azaro* 6^{an}.







HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik datu bost ourthez arround. Bostgerren arraldia diala hirour ourthe hasirik izan da.



ERRAN ZAHAR



Ezta zer eska garhi zunharrari.

Eztate ountsa zerbutchaturik bere mañatareki nahi dena tchostatu.

Khaparrak itzala begizu, bera bezala.

Gathia ouhouñ izana gatik, eztezala ohilt ore etchetik.

Guk euri badugu, ziek badukezie ihitz.

Lephoan nian mina hets nenzaten zankhoan

Ihouri pot egin behar dianak gibelaldian, eztu irabazirik luzatzian.

Noure behitik ezne, gourhi eta gazna idoki nezan, eta chahala gal nezan.



Ohi beno naiena balakatzen ago, zerbaiten eske dago.

Orratzak beno hariak izan behar du luziago.

Sagiak jan liroana, jan beza gathiak.

Zer da mira ardiak otsoari ihes ari badira?

Geroa herabestiaren leloa.

Gerokoa hobe ustezkoa, nahiago dut houn oraikoa.

Gezurtiak zer du merechitu?

Egia derranian gezurtatu.

Gibel egiok ekhartzari.

Gizon bizar peitutik, eta emazte bizartsutik ihes egik noula khozutik.

Gizon gaztia andrekarri higadaite esteiari.


Gizon Jinkotiarrari Lestarre eta Donostia bardin lakhetgia.





OURTHARILA


Egunak luzatzen dira oren batez.




- ☿ *l. l.*, 8ⁿ, goisanko 11^{or} eta 46^m.
- ♄ *e. h.*, 14ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 4^m.
- ♃ *a. l.*, 22ⁿ, gaiherdi eterditan.
- ♁ *g. h.*, 30ⁿ, goizanko 8^{or} eta 14^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ☿ *l. l.*, 6ⁿ, goizanko 10^{or} eterditan.
- ♄ *e. h.*, 13ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 16^m.
- ♃ *a. l.*, 21ⁿ, gaiko oren eta 43^m.




1 Igante.	ZIRKONZISION	1 Astizken.	s. Inazio.
2 Astelehen.	s. Makari.	2 Ostegun.	KHANDERALLU
3 Asteharte.	sa Jenevieva.	3 Ostirale.	s. Blasi.
4 Astizken.	sa Fausta.	4 Neskanegun.	sa Jana, Val.
5 Ostegun.	sa Amelia.	5 Igante. 5.	sa <i>gatha</i> .
6 Ostirale.	APHARIZIO.	6 Astelehen.	sa Dorotea.
7 Neskanegun.	sa Melania.	7 Asteharte.	s. Romual.
8 Igante. 1.	s. <i>Luzien</i> .	8 Ast. <i>IV. Th. B</i>	s. Johane Mat.
9 Astelehen.	s. Julien.	9 Ostegun.	sa Eskolaztika.
10 Asteharte.	s. Marzien.	10 Ost. <i>IV Th. B.</i>	sa Eskolaztika.
11 Astizken.	s. Teodoso.	11 Nesk. <i>IV Th B.</i>	A. B. Lourdakoa.
12 Ostegun.	sa Taziena.	12 Igante.	<i>Setuajesimo.</i>
13 Ostirale.	s. Leonze.	13 Astelehen.	s. Jilbert.
14 Neskanegun.	s. Hilera.	14 Asteharte.	s. Valenti.
15 Igante. 2.	s. <i>Phaole</i> , erm.	15 Astizken.	s. Faosti.
16 Astelehen.	s. Marzel.	16 Ostegun.	sa Julieta.
17 Asteharte.	s. Antoni.	17 Ostirale.	sa Hiji.
18 Astizken.	J. Phetir. Err. Jartia	18 Neskanegun.	s. Flavien.
19 Ostegun.	s. Kanut.	19 Igante.	<i>Setsajesimo.</i>
20 Ostirale.	s. Fabien eta Sebast.	20 Astelehen.	s. Euehez.
21 Neskanegun.	sa Añes.	21 Asteharte.	s. Pepein.
22 Igante. 3.	s. <i>Bizente</i> .	22 Astizken.	J. Petri. Ant. Jart.
23 Astelehen.	s. Remoun .	23 Ostegun.	s. Petiri Dam.
24 Asteharte.	s. Timote.	24 Ostirale.	J. MATHIAS, ap.
25 Astizken.	J. Phaoler. kon.	25 Neskanegun.	s. Zesaire.
26 Ostegun.	s. Polykarpe.	26 Igante.	<i>Kinkajesimo.</i>
27 Ostirale.	s. Johane Kris	27 Astelehen.	s. Ounona.
28 Neskanegun.	s. Amadeo	28 Asteharte.	s. Rufi.
29 Igante. 4.	s. <i>Franz. Sal</i>		
30 Astelehen.	s. Martina.		
31 Asteharte.	s. Petiri Nol.		



MARTCHOA edo OSTAROA


Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☉ *g. b.*, 1ⁿ, goizeko 7^{or} eta 55^m.
- ☽ *l. l.*, 7ⁿ, goizeko 9^{or} eta 29^m.
- ☿ *e. b.*, 25ⁿ, goizeko 6^{or} eta 44^m.
- ♁ *a. l.*, 23ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 42^m.
- ☉ *g. b.*, 30ⁿ, arratseko 6^{or} eta 20^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☽ *l. l.*, 6ⁿ, goizeko 10^{or} eta 5^m.
- ☿ *e. b.*, 24ⁿ, arratseko 6^{or} eta 32^m.
- ♁ *a. l.*, 21ⁿ, gaiko 2^{or} eta 10^m.
- ☉ *g. b.*, 28ⁿ, goizeko 3^{or} eta 41^m.



1 Astizken.	HAOSTE.	1 Neskanegun.	s. Huges.
2 Ostegun.	s. Zinplize.	2 Igante.	PASIONIA.
3 Ostirale.	s ^a Kunegonda.	3 Astelehen.	s. Richart.
4 Neskanegun.	s. Kasimis.	4 Asteharte.	s. Ambrosi.
5 Igante.	GOROZUMAKO 1 ^a .	5 Astizken.	s. Bizente Ferr.
6 Astelehen.	s ^a Koleta.	6 Ostegun.	s. Sisto.
7 Asteharte.	s. Tomas Akin	7 Ostirale.	s. Herman.
8 Astizken.	s. Johane J.	8 Neskanegun.	s. Albert.
9 Ostegun.	s ^a Frantzesia.	9 Igante.	ERRAMU.
10 Ostirale.	40 Martirak.	10 Astelehen.	s. Makari.
11 Neskanegun.	s. Euloje.	11 Asteharte.	s. Leon hand.
12 Igante.	Gorozumako, 2 ^a	12 Astizken.	s. Jules.
13 Astelehen.	s ^a Ufrasia.	13 Ostegun.	Osteg. <i>Saintu.</i>
14 Asteharte.	s ^a Matilda.	14 Ostirale.	Ostir. <i>Saintu.</i>
15 Astizken.	s. Zakaria.	15 Neskanegun.	Neskan. <i>Saintu.</i>
16 Ostegun.	s. Ziriaka.	16 Igante.	BAZKO.
17 Ostirale.	s. Patrik.	17 Astelehen.	s. Anizet.
18 Neskanegun.	J. Gabriel, ark.	18 Asteharte.	s. Electero.
19 Igante.	Gorozumako, 3 ^a	29 Astizken.	s. Leon IX.
20 Astelehen.	s. Jusef.	20 Ostegun.	s. Teotimo.
21 Asteharte.	s. Bedit.	21 Ostirale.	s. Anzelmo.
22 Astizken.	s ^a Kiktruda.	22 Neskanegun.	s. Suter eta Kaio.
23 Ostegun.	s ^a Pelajia.	23 Igante.	s. Joji.
24 Ostirale.	s. Simeon.	24 Astelehen.	s. Zerazi.
25 Neskanegun.	A. D. Anontz.	25 Asteharte.	J. MARK, Eb.
26 Igante.	Gorozumako, 4 ^a	26 Astizken.	s. Klet & Marz.
27 Astelehen.	s. Robert.	27 Ostegun.	s. Zerazio.
28 Asteharte.	s. Justein.	28 Ostirale.	J. Phaole, K.
39 Astizken.	s. Pastor.	39 Neskanegun.	s. Petiri. m.
30 Ostegun.	s. Amadeo.	30 Igante. 2.	s ^a Katalalina.
31 Ostirale.	s. Benjameñ.		



LEGIA LEGE



GZAGUTZEN dugu, oraiko eskola Jinko gabe-koetan, bat, zouintan hitz larriz ezaririk beita, haurren begien aitzinian, eztela deus ere errespetagarriagorik, goragorik, handiagorik, legia beno; behardiala legiak bethi obeditu, eta holako.

Hitz ederrak horik; hanitch gizon gehitien ahotik ere hola holako elhiak jalkhitzen dira, berheziki gobernamentiak ountsa erabilten dutianen ahotik.

Hitz horik bethi egiak othe dira? Ez eta hullanik ere.

Legiaren izenian, Justoa, Jesu-Krist goure Jauna, izan zen tribunaletara eroanik, gaizki-egile bat bezala hiltzera kondenaturik eta khurutzefikaturik.

Legiaren izenian, Jesus Haurraren hileraztia gatik, ehorik izan ziren beren Khuñetan edo beren amen bouharretan, bi ourthez peko haur ogen gabiak, Innozentak deithiak.

Legiaren izenian, hirour mextez, lur guzia odolstatu-rik izan da; lehen khiristietarik hamar milioz gañetik ehorik izan beitira, ukho egin nahi etziela-koz errelijionari.

Legiaren izenian, gillotinak eraikirik izan ziren, Erreboluzione demboran, hirietan, eta Errelijionia-
ren ministro edo zaiñtzale hoberenek lephoa mouztu-rik ukhen zien.

Legiaren izenian, Jinkoa ukhaturik da orai Frantziako gobernamentian eta haren peko diren gaiza orotan, ala armada, ala tribunale, ala kargulanteria, ala eskola, ala eritegi; bazter orotan *Jinkoa ukhaturik!* Elhe thorpia, bena egia dena, enai ihourk ere gezurtatuko.

Legiaren izenian, batak bestia nahi du, Jinkoa ukhatuz geroz etzen besterik izaten ahal, Gobernamentiak ebatsi dutu komentiak eta fraidetegier edo serorategier zoatzen hountarzunak; ebatsi dutu Elizarenak hala hala, ebatsi aphezakuputegiak, seminarioak, elizentako utzirik izan ziren arrandak ebatsi dutu *hilen meza saritako* egin utzitiak berak!

Legiaren izenian, bihar nahi dutu Gobernamentiak gabetu aita eta amak beren haurren gañen dutien zuzenez, eta beitutuzke bere gogoko eta mouldeko errejentetan, gañ-gañetik phakaturik eta zer nahi lanen egitera ekharririk diratekian mithil elibat, ametsten du errelijioniaren osoki khentzia, Frantziako lurretik.

Zer! hori othe daei legia? Hori othe da Jinkoaren eta Errelijioniaren orde, oraiko eskola egilek haurrer errespetat-erazi eta maitha erazi behar diena?

Ez ez, eta behar ere. Chuchen mintzo zen, Bretañako zenatur katoliko eta erregetiarra *M. de Lamarzelle*, erraiten zianian, diala sei ourthe, pherediku batetan, Parise khantuko hiri batetan: « Nik, aithortzen deiziet, galtzen dudala legeen errespetia; sobera badakit noula eginik diren legiak, sobera badakit berheziki, zer balio dien legeen egilek. » Eta azkenik, beste lege-egile chouri batek, *Driant Komandantak* zioana: « Badira lege elibat, berekin herioaren azia ekharten diena. »

Holako legen aitzinian ezta buru aphaltzerik obedientzia kriminel batez; eginbidia da buhurtzia, bizia khosta behar balitz ere, errelijioniaren eta Jinkoaren ertzeko zuzenak erriskian direlarik; ezi

lege horik eztira egiazko legiak, bena bai, basa legiak, lege faltsiak.

Dugun ikhous zer den legia, zola zolatik.

I. — Zola zolan, bada Jinkoaren legia; ezteite hori desegin, haboroziz ezpeteite desegin Jinkoa bera. Harek du gobernatzan mundu guzia; bai enthelegurik gabeko izatiak, bai enthelegudunak.

Jinkoaren legia izkiribaturik da, gizonen beithan, kontzentzian. Lege hori da barneko mintzazale houra, gaiza zounbaiten egitera erakharten eta hala hala gaiza zounbaiten egitetik desaholkatzen diana. Kontzentzia, chuchen delarik, hartan miraill chahu eta argi batetan bezala ageri da Jinkoaren legia.

Bena hortan baratuz, kontzentziak oro eztirelako chuchen, ez bardin argiturik, bazatekian jente bezainbeste lege; hartakoz, agerikiago, Jinkoak eza-guterazi du gizoner bere legia.

Hirour aldiz egin du ezaguterazte hori : *lehenik*, lurreko Pharadusian, Adami eta Ebari; *bigerrenik*, Sinaï mendian, Moyseren bidez bere populiari; *hirourgerrenekorik*, Ebanjelioan, mundu guziari apostolien bidez helerazteko.

Jinkoaren legia arren, gizonena beno lehen eta gorago da.

Jinkoaren legia gizonkentia beno zaharrago da; Jinkoak gizonaren egiteko ukhen zian gogoaren ordutik, arren bethi-danik du bere hastapena, Jinkoaren legiak. Eztu behinere ukhen ez ukhenen khambiorik, hastetik eta bethikoz perfecta beita, Jinkoa bezala; ezta ere eta ezgutu herratzen ahal, Jinkoa egia bera beita eta egia ezpeita behinere izaten ahal gezurra.

Gizonen legek aldiz ukhen die beren hastapena eta hanithek ere beren urhentzia. Gobernamentu batek berak, eta oraikoak hortaz sobera baizik ezteiku jakilegoa emaiten, bere legiak noula nahi khambit-

zen dutu; atzo lege zena egun deseginik da; bihar lege dateke egunko legia pialazgoratuko dian beste lege berri bat; Gizonen, gobernamentien, lur hountako photeren legiak ezinago khambiakorrak dira, batian chuchen, usian okher.

Oraiko Errepublikaren legetan beretan badira hainbeste nahaskeria, noun tribunaletako jujeek, ber legiaren gañen, bedera abiseko direlako, eman beitutie eta egun oroz emaiten, sententzia eli-bat, osoki berhezi direnak, alkharren kontre direnak; baia eta eza, gaia eta eguna berhez diren bezala. Phentsa arren, alkharrekin komparatzen badutugu oraiko legekin, Chourien Errupublikak, Emperadoren eta Erregen gobernio-mouldek, aitzinetik egin legiak. Eta eztirelako alkharren uduri, hullanik ere, eztira oro chuchen izaten ahal.

Zertarik ezagun arren nouiz den gizonen legia egiazko lege eta nouiz basa-lege edo lege faltsu?

Jakiteko, lantzen dian zourra chuchenian dianez, zer egiten du maiasturiak? Hartzen du erregla eta hartarik ezagutuko du. Jakiteko, egiten dian murria plomian dianez, zer egiten du harginak? Hartzen du nibela, hartzen du plomu haria eta hartarik ezagutuko ountsa doanez lana.

Jakiteko ere lege bat chuchen den, houn den, ala ez, behar da sogin lege ororen erregla eta nibelazale edo kontrolazale den lege ezinago chuchenari, Jinkoaren legiari.

Lege haren araberrako direia gizonen legiak, gobernamentien legiak? Lege chuchenak dira, egiazko legiak dira; besteñiz ez; besteñiz lege faltsiak, basa legiak, lege gaistoak.

Hogei liberako urhe hounaren eta faltsiaren balia eztira bardin; faltsiak, ukhenik ere kampotiko urhe uduriak eta markak oro, eztuke baliarik batere, barnia gaisto dukialako; ha'a hala legia, bardin photere

azkarrenak egina, ezpada Jinkoaren legiaren arabeko.

Montesquieu, Frantziako izkiribaño aiphatiak erran du egia handi hau : « Gaiza bat legian delakoz ezta erran nahi gaiza houra chuchen dela ; eluke legian ezaririk izan behar, noun ezten chuchen. »

Victor Hugo, haboroziz *Montesquieu*, ezta bethi chuchen izan, bena, halerik ere, aithortu du badela berhezigoa bat Jinkoaren eta gizonen legen artian eta legia eta zuzena usian biga direla.

Léon XIII Aita Saintu zenak, hitzez hitz, izkiribatu du : « Lege bati ezta zor obedientziarik noun ezten enthelegu chuchenaren eta Jinkoaren legiaren arabeko. »

Apostolien demboretako errana nourk eztu eza-gutzen : « Hobe da Jinkoari obeditzia gizoner beno. »

II. — Horik hola, dugun ikhous zer den goure khiristi eginbidia. gobernamentuko leger buruz.

Hirour kasu agitzen ahal dira. Edo gobernamentuko legiak Jinkoaren legiaren arabeko dira ; edo dira ez kontre, ez althe ; dedo dira kontre.

1^{en} Kasia. — Gobernamentuko legiak Jinkoaren legiaren arabeko dira ; ordian da erran behar : *legia lege.*

Ordian, Gobernamentiari obeditzia, Jinkoaren legiar manhaturik da. Legarrak behar dutugu phakatu, legia da ; soldado behar dugu joan, legia da ; besteren houna ebatsten balinbadugu protsimoa des famatzen balinbadugu, kolpatzen, ehaiten, gobernamentiaren justizia ondotik dukegu gaztigaturik izanen gira ; eztukegu plañitzeko zuzenik, legia da. Lehen kasu hori nourk nahik ountsa enthelegatzen du.

2^{en} Kasia. — Gobernamentuko legiak eztira ez Jinkoaren legiaren althe ez ere haren kontre.

Badira hanitch gaiza Jinko uren legiak manhaturik edo debekaturik direnak eta haien aitzinian gubernameñtiaren legiak ezachol baratzen beitira; hala noula, igante egunen santifikatzia, aita eta amen maithatzia eta behar ordietan laguntzia, prauber sokhorri egitia, etsemplu hounaren emaitia; hala noula, blasfemiorik ez egitia, kaseta edo liburu gaistorik ez irakourtzia, bizitze tzarrik ez eramaitia.

Gaiza horietan orotan eta beste hanitchetan, gubernameñtuko legek libro utzirik ere, sori zaikia libertate harez prebalitzia, nahi dugunaren egiteko? Ez, hullanik ere. Koda deithu lege libruko artikuliak oro jarraiki begintza, ezta erran nahi horrez beraz osoki ounest girela, goure eginbidia osoki bethe dugula. Ez, ez; kodan badira ehun mila gaiza aiphaturik eztirenak eta halere bethe behar dutugunak. Goure errelijioniaren erakaspene, edo liburien bidez edo goure kontzentzia Khiristiaren bidez edo Elizako ministroen bidez, argitzen gutie; ditzagun har gidatako legia ichil, edo utsu edo gor den gaizetan.


3^{en} *Kasia*. -- Gubernamentuko legiak Jinkoaren legiaren kontre dira. Hori agitu da, zer nahi gubernameñtu suerte edo guberniomouldetan. Hori agitzen da orai Frantzian, fraidekente eta serorakenter buruz, aphezkontiari buruz, Elizaren hountarzuner eta beste zuzener buruz, haurren eskolatzuari buruz, eginik izan diren legetan; eta hanitch dembora gabe, segur izaten ahal gira sordeistuko direla gaizak, gubernamentia uzten badugu abiaturik dutian lege dohakabe elibaten burutzera.

Zer egin ordian? Edo gubernamentuko legek galthatzen deikie goure *zuzen zerbaiti ukho egitia*, hala noula zor eztugun legar berhezi baten phakatzia; nahi dugunaren egiteko librogira; edo, eta *hountan ezta haiturik*, manhatzen deiku *eginbide bati ukho egitia*, huts egitia, *ordian eztugu kontzentzia* obeditzen ahal, eztugu behar obeditu.

Lehen khiristier, gobernamentuko legek manhatzen zeien intsentsu bihi baten beraren jinko faltsien aitzinian erreraztia; lehen khiristiak hil dira suplioetan gaiza uduriz tchipi hori egin beno lehen. Kargulantek, ala handi ala tchipiek erraiten zeien behar zela obeditu, legia zela; lehen kiristiek ihardetsten zien : « hobe da Jinkoari obedizia eziez gizoner! » Eta gogotik hiltzera joaiten ziren. Zer letziona gouretako!



AMERIKA ETA HIRIAK UTZIRIK,
HOBE DELA SOR-LEKHIAN EGOITIA



JESUITA Uskaldun batek, Frantziatik Kampo, orano berri egin dian libru batetan, zouñen deithura beita frantzesez (*l'Emigration basque*¹), mintzo delarik Uskaldunaren Amerikalat joaitiaz, erraiten deiku : « Uskaldunak odolian diala itchasoalat eta hurrun fortuna egitera joaiteko dian aihnia; erreus, ezin eden dela, sor lekhotik norapait joan ezteno, eta hartakoz dela lehen ikhousi, eta orai ere ikhouston, goure gazteriatik pharte, Amerikalat ilbertzen, menturareki han zerbait hountarzun eginik, gero jinen dela Uskal-herri maitialat lehen beno aisakiago bizitzera. »

Gudizia tchipia, erranen die, Uskaldunaren gudi-
zia. Bena, zer ondoramen edo zer houngoa ekharri
du kartielari jentiaren Amerikalat joaite horrek?

1. Liburu hori egin du Mousde PIERRE LHANDÉ Zalgiztar aiphatiak.

Amerika lekhu aiphatia, Amerika lekhu aberatsa diharuz, ò bai, eta diroie diharuz beno aberasatgo dela errelijionez, zeren hebentik joailek, eraman dien errelijionia Ameriketari utzirik jiten beira.

Eta haregatik, gaizen ountsa hartzera, eta jakitant handien arabera, ezta dihariar nazione baten egiazko aberatstarzuna — eta Uskalduna nazione bat da. Nazionebat, kartiel bat aberats da, ountsa badao, noiz eta ere lurrak emaiten deitzen hountarzunak gorentzez beitoatza; laborantcha, ber hastian, edo gibel joaitako lekhotan aitzinatzez beitoa. Hola doan kartiela aberats da, eta baduke dihari Amerikala tcherkha joan gabe, eta ere dihari khambioan erdia galdu gabe.

Zer ments du goure kartielak, Ziberoak, hola izateko? Ments du, Frantzia orotan den bezala, jentia, ments dutu besoak!

Badu ourthe zombait, eri baten ikhoustera banondoan Sohutako elgiari eta etchauer gainti : artherika beroa zen. Ni ere laboraria, soz ari nintzan artherikan ari ziren langiler; han enian ikhousi alhorretan lanian ari, ni bezalako gizon chahar elibat arhiari etcheka eta haur tchipi elibat behi deitzen baizik, kasik ihour besterik. Ene beithan erraiten nian : « Noun dia Sohutako gizonak? Othian ezteia ihourere artherikan ari nahi denik gizon chahar eta haur tchipi horik baizik? »

Nourbaitek arrapostu egin baleit, egia baizik etzian erranen eni erraitetz : « Sohutan, beste herrietan den bezala, bada jente andanabat Ameriketarat joanik; bestiak espartia egingietan edo etchen espartian ari; eta, soldadogotik jiten dien mourrouin gaztek ezte beste ametsik jandarma sartzia, garda izatia, baizik. Kargulant izan nahi dira eta az haboro etchekoak bezala, laborari.

Bada erran bat Phetirisantzen etchetik ohiltzeko

hartu behar dela uztupa fusuilla. Bena ni baniago, noula edo zertzaz Pierreistik betheren dian alforja, Amerikalat joanik dienen etche huts eta hegatz ziloen borthetan, ezpada kartielian lanian ari nahi aborari semia.

Bai, ezta sobera baizik egia, Ziberouko jentia hertu eta hertzen ari dela, hirour gaitz horik direlako: 1^a, Amerikalat joaitia; — 2^a, hirietarat gazten joaitia; eta 3^a, kargulant nahi izatia. Hirour gaitz hoietan zaharrena eta haboroenik ogen egin deikuna da, uduri zait, Ameriketarat gazten joaitia.

Horrek du laboraria gaizki erabili eta laborantchari ogen ekharri, ez berbera kartiela jentez praubetuz, bena orano goure diharia eramanez Amerikalat, ezpeita segur hantik jin direnek ekharri diela Ziberolat eramanez dien bezainbeste diharu.

Hola denaz gañen eta hartakoz, erraiten ahal dugu, Amerikak eziala Ziberoa aberastu bena bai jentez praubetu; eta banutu ezdutudan bezala, sei seme, ene aitak ukhen dutian bezala, Bathotchbatere eniro utzi Ameriketarat joaitera, zeren erran zaharretan aphur gezur delako, Frantzesez erranik ere errana: « *Pierre qui roule n'amasse pas mousse* », uhaitzak dabilan harriari ez lotzen oroldirik.

Zer beniaz, zeihareraziren da gaztia galbidetarik? Zer den benia, badakigu, hora da errelijonia. Errelijione dien aita eta amek ez dutie uzten joaitera seme eta alhabak norat nahi, ez nola nahi. Errelijoniak erakasten deiku orori, kountent izan behar dugula, Jinko hounak eman deikun sortzapenaz eta izate aphaiaz; irous, dohatsu, izanen direla egun batez ezpirituz praube direnak.

Lanian haregatik ari behar dugu, eta geñhatu, aberastu, ezpirituz praube izanez.

Egunko gazter, ez orori behar ere, uduritzen zaie, laborari beno hobe dela, kargulant izatia, hirialat

edo Ameriketarat joaitia. Gainti egiten die segur. Bai Amerikala, bai hirietara, sobera athetu da jentia, eta bada han miseria guk ezagutzen eztugunik. Parissez baizik ez mintzatzera, bada *bachelier* oski zirutzen ari denik bizitzeko.

Aldiz laboraria, ezta dolugarri egunko egunian, zorrez kargatucherik izanik ere; mouzkin ederrik egiten ahal du; eta, goldenabar berri, ogi joiteko, belhar ebakiteko, mekanika baliouseen medioz heltzen ahal da, — o ez nekatu gabe — laner buru emaitera.

Bestelako lizate haatik goure gasteria egon balekigu kartielian. Hartakoz uduri zait iseiu zerbait egin behar lizatiala, jente gaztiaren sor lekhian egonerazteko, eta hori, ororen hounetan eta kartielaren abantallatan.

Artikulu hori eginik Mousde Marcellin Çugun Zalgizeko etcheko-jaunaz, irakourturik izan da Athar-ratzeko Congrès cantonal deitu biltzarrian, ozaroaren 20^{an} 1910^{ian}.



NAHI DUDANAREN GOGOAN EROAITERA HAIZU NIZ



BEHIN, burduñ-bideko karroucha batetan, khao-sitzen ziren hamar bat bidajant, zouñtarik emazte adineko bat, errejent gazte bat, eta aphez chahar-chahar bat.

Emaztettoa, bere khounderak unguraturik, zeñhatu zen, khurutchiari pot eman zeion, eta eskia khoundereki sakolan ezari zianeko, goure jaun errejentskotak plegatu zian *La Dépêche* bere kaseta zozialista, moustatcha buhurtuche, eta, erri bateki erran zeion

emaztiari : « Ountsa buruhuts izan behar dizu, orai-ko demboretan, zuk egin duzunaren egiteko. Nik enirozu ene sinhestia eman errelijione bati houra ountsa estudiatu gabe, haren borogantchak ountsa phezatu gabe. Ni nahi nuzu libro izan ene gogoaren gaiza orotara hedatzeko batere mugarik gabe, aldiz errelijoniak alde orotarik zedarriak ezarten ditizu goure gogoaren hedaduraren libertatiari. »

Emaztettoak, nahi bada sabant uduri ziren jaon gaztiaren thermañiak, ihardetsi zian : — « Jaona, ez-tuzu zouri mothoaren truku bounet bat lehentze ezari deizienan, ekhia lehen aldikoz agertu, eta goure aizinekoak ere bazutuzun zerbait. Arauz, bere hoununia behar dizu ukhen goure errelijoniak hañbeste irain dianian. Bestalde, ene demboran ere asmatu dit jente tzarrak, okherrak eta gaizkiala emanak, bethi errelijionerik gabekoak zirela, edo, hartaratu direla, errelijioniarem saila utzi dielako. »

Aphez chaharra bere aldetik utzuli zen errejentari buruz, eta erran zeion : « Zounbat ourthe tutzu, Jauna? » — Bestiak ihardesten deio : « Hoge eta bost ourthe. » — « Eta nik, » dio aphezak, « baditit hirouretan hoge eta hamabost, eta, haietarik berrogei eta hamabost igaran ditit errelijioniaren ikhasten. Arren, zihauri galthatzen deizut, zounek hobeki dakigu zer den errelijonia, ala zuk, agian hoge orenez, zoure bizian, errelijonia estudiatu eztuzunak, ala nik, errelijonia berrogei eta hamabost ourthe hountan estudiantzen dudanak? » Ichilik baratu zen goure jauns-killota, eta ikhousirik beste didajantak aphezaren eta emazte chaharraren gogoko zirela, lehen ukhuragian lekhia hustu zian.

Jaon errejent horren gisa, zounbat jente eztira mintzaten egunko egunian? Orain artino mundu katolikoa okher joan balitz, bi mila ourtheren burian ziena jentek asmatuko, eztiala batere foundamen hounik, haren establitzia, haren hedatzia mundu guzian,

karen iraitia hemeretzu mentez, phorru herrokatzia bezañ lan ezdeus bat eta chi b t izan dela? Eta orai artino lurrian igaran diren khiristiak, bardin jakitate eta thalentu handikoak, buruhuts edo asto-lili elibat izan balira bezala, entzuten dutugu egunko egunian, doidoia phountchou batera bilten, edo behi-pare bat uztartzen dakien gizon zounbait, mintzitzen Aita saintiaren kountre, aphezen kountre, fraide eta sero-rakentiaren kountre, errelijioniaren eta errelijionia- ren erakaspenen kountre.

Eta zertako hori? Zeren eta kaseta gaisto batetan, egun oroz edo zortzi oroz, irakourtu beitie artikulu zerbait errelijioniaren gañen, komoitate chahatzen erabilirik izan den erhatzak bezañbeste errespetu eta estimu merechi dien izkiribaño zounbaitek eginik. Zertako orano? Zeren eta Jinkoaren seigerren ma- niareki edo zazpigerrenareki — edo bieki — eta kofesatzeko obligaziioniareki aharra dien jaun edo gizatzar elibatek hala erran beiteie. Zeren eta berer ere gochoago beitzai errelijionerik gabe, errelijio- niak manhatiak egin gabe bizitzia.

Hots, nahi beitera izan *libres-penseurs*, eta geroztik, batak bestia nahi du : *libres-viveurs* edo *libres-faiseurs*. Zedarrerik batere libertatian, ez gogoarentako, ez kondutarentako, horra hen bizitze mouldiaren zola edo foundamena.

Bouhamiak ere halako dira : hentako, oro libro, jakilen edo hede-chouri dunen bichtan eztiren ber. *Libres-penseurs* direlakoen eta bouhamen, oro libro, Jinkoa ala khuso bat, kountzentzia ala thipiña utsu bat, ber gaiza balira bezala.

Dugun ik hous zer balio dian erran horrek : *Ni ene gogoan nahi dudanaren croaitera haizu niz*, edo, frantzesez : *Moi, je suis libre-penseur !*

Horren errailiak : *Buru chilo dirä ; Gezurter dirä ; Besten zaphazale dira.*

Eta *lehenik*, buru chilo dira : Nourk bere gogoan nahi dianaren phentsatzeko libro izatekoz, eztu behar nihounere ukhen gogo haren zedarririk, mugarik edo phareterik. Eztu ezagutzen Jinkoak edo erreligioniak ezari phareterik, mugarik edo zedarririk; bena ordian, nahi denaz gañen libro izan phentsatzko Jinkorik eztela, erelijione beharrik eztela, behar du ere libro izan phentsatzeko bigek eta bigek egiten diela lost, Maoletik Dona-Joanerako biderik chuchena etallaburrena Barkoche eta Eskioula gainti dela; Napoleon handia ezte izan behinere, Erromako hiria orano berriki egiten hasirik dela. Behar die ere haren haurrek, batere balinbadu, ukhen zuzena phentsatzeko beren aitaren eta amaren eretzeko obligazionerik batere eztela, chahalek eta cherri humek beren amentako dutienak beno haboro. Ezi beren haurren gogoak edo berenak ezpalindutu holako gaizak phentsatzen ahal, gogo harek behar balinbadutu borogatu zedarririk edo muga edo pharete elibat, noulaz erranen ahalkoda : Ni ene *gogoan nahi dudanaren hartzera haizuniz?* *Moi je suis libre-penseur?* Gaizo buruchiloak, asto-ziriak, titulu espan totch hori beren burier emaitiareki, ezarten die beren belarrian izkiribaturik bezala : *Moi je suis un grand tutulu!*

Behin eihera-zañ bati hil beitzeion bere astoa, nigarrez ari zelarik haren lur pian ezarten, *libre-penseur* batek erran zeion : — « Zer, hik, holako gizon elizatiarrak, noula astoa ehortzten ahal duk aphezik gabe, elizako othoitzia gabe, hil-zeñurik gabe? » — Eiherazañak ihardesti zeion : — « Zer nahi duzu, Jaona, hao ere zu bezala sinhesterik gabe zuzun! »

Bigerrenik, gezurti dira : Espanto egiten dianian *libre-penseur* batek eztiala batere sinhesterik egia erraiten othe du? Atch, hori ez. Tempesta gaitz bat jin dadila uhulgu zapartek zerbait iratzar-azten die

haren bihotzian, haren beharriak iharraosten dutien bezañ segur. Hel dadila eritarzun handi bat hen etchera, haur bat gaizkitzera dadila, zounbat *libres-penseurs* hoietarik eztira, holako ordietan borogatu beitutie beren belhañak zañ-hiltzen, ikharatzen, plegatzen; beren esku eskuña, ikharaz bazen ere ikharaz belartiala altchatzen zeñhatzeko; beren mihia atrebitzen erdi ahatzerik zen othoitze baten erraitera Zeluko Aitari, eta hañbeste sendotze egiten dutian Birjina saintiari, emaztiak haur eriarri golharreta-bat Lourdako hour emaiten zeion demboran? Zounbati, beren osagarri demborako espantoak etzaitze dolutu eta erori, berak gaizkitzeratu direnian? Eta ordian zounbatek eztie gogo hounez ikhousi, hugu zien eta trufatu dien apheza, jiten beste mundiaz mintzatzera, kontsolazione, koraje eta esperantcha emaitera igaranaz dolumena nahi balinbazien hartu? Eta eternitatiaren hullantziareki zuhurtzia ara-utzulirik, zounbat esker houn eztie ukhen hañbeste gutietsi zien errelijioniaren eretzian?

Holako bat bazen, behin batez, hanitch gaizki, hiltzeko bezperala helturik. Bera uduriko adiskide batek, jakinik herioa hullanturik ziala, erran zeion: « Kofesa bahendi! » — Eriak ordian: « Zer diok? Ni kofesa? Eztugia hanitchetan *erran* alkharri horik oro bekatutchkeriak zirela? » — Bestiak arrount, hasperen arrankuratsu bateki: « Bai, bai, hala erran diagu; bena ezguntia horrez segur, eztiagu borogantcharik behinere ediren; hartakoz ere hobe duk kofesatzia. » — Eta bestia kofesatu zen. Mila holako etsemplu eman ahal ginero.

Espanto egiten dienian, baizik eta ere libro direla, egia erraiten othe die? Ez, ez, hullanik ere ez! Buriari sartzera utzi dien gogo edo tema gogor haren pian dira; hartu dien errelijione gabeko eskolaren pian dira; *Comité* izeneko besarkatu dien biltzarriaren aitzindarien pian dira; berek arinki politika

okher bati jarraikitzeo haitatu lagunon pian dira; framazouen eta erreligioniaron etsai errabiatienon gehiengoaren pian dira; gisa oroz, esklabo dira, eta zuhur edo chuchen bouilta batez, zer diot, gizon bouilta batez berbera, nahi balie elhe bat erran, gaiza bat egin, bere lagunon politikaren kountre, bere aitzindari framazou edo hargin-beltzen kountre, basa-ahalke batek libertatia khatiastatzen deie; behiek beron buria uztar-hedez beno azkar kiago eta tink kiago, berengogoa eta libertatia estekaturik dutie, uztarturik bezala, hourak noula nahi eta nou-rat nahi erabilten dutien lagun eta gehien eli-batez.

Etzien nahi Jinkorik ez haren izenian mintzazalerik, bena nausitako ezagutzen die kaseta bat gaiza saintienak eta errespetagarrienak lohizatzen tiana; *gizon bat* hanitchetan tzarra, ahalkorik eta erreligionerik gabia, edari tzorta baten truku, apairu baten truku, zer nahi okherreriaren egitera erakharriko tiana; *comité* delako biltzarre baten aitzindaria zouñi obeditzia-gatik beron sinadurak eta beron botzak, tzarkeria bardin handienon bermatzeko emanen beiteitze.

Berek erranik ere libro direla, eztutie ihourk ere hañ laidogarriki beron libertatia eta gizontarzuna estekaturik, noula *libres-penseurs* direlakoek.

Hirourgerrenik, besten zaphazale dira: Oraiko legia, Frantzian, *libres-penseurs* deithu lege egilek, noulako beita *Barthou*, noulako beitzen *Berdoly* zena, emanik dugu. Arren, uduri luke, Frantziako katolikoek, girelako z jente, eta geroztik enthelegudun, gogodun, hartze gunukiala legiaren eretzetik, gobernamentiaron eretzetik, zuzena, goure gogoak eta goure bihotzak maite dien erreligioniaron librok i pratikatzeo.

Hortarik ari da, ezteia hala? Gihaurek, hañ arhinki haitatu zenatur edo deputatiek, legian ezarî dutie khatiak goure libertatiari, zedarriak, mugak, pharetiak,

goure erreligionari. Eta goure hobetan ezdutugu zedarri hourak gaintituko, besteñiz, gaztigu garratzenen berri jakinen dugu: amanda phakatze, gouriak diren etchetako zuzenez bilaizte, presountegi, desterialat joaite eta holako.

Jinkoak berak zinez gomendatu bizitze perfeita eraman nahi dugia fraidegoan edo seroragoan, goure hountarzunak eta goure irabaziak boti ezariz, miserian dien jenter hounki egiteko, haurren onestatian eraikiteko, erreligionerik eztiener erreligioniazen ezaguterazteko eta maitha-erazteko? Ezkira libro, goure nahiaren egiteko; *libres-penseurs* hoiek egin legiaren izenian, tribunalek kondenatuko gutie, gobernamentiak haitatu jaon batek, guk egiazko buruzagiek nahi badugu eta ezpadugu, goure etchiak, goure lurak salduko dutu, eta bere sakolak eta gobernamentuko kesak ountsa betheko; gu aldiz atherberik gabe, bizibiderik gabe, legiaz arrobatu rik, ouhouñek bere hountarzun ez gabeturik ezari dutien jentia uduri, baratuko gira.

Kargulant balinbagira, nahi gireia joan igantez mezaren entzutera, Bazkoz kofesatzera eta komuniatzera, behin edo behin, aphez baten etchen bazkari-tera? Bertan *libres-penseurs* hoiek egin legiaren izenian, erranen deikie behar dugula: edo osoki utzi goure gogoak nahi dian erreligioniazen pratikatzia, edo, goure kargia galdu, eta, halaz, goure buria eta goure familia gosian eta miseria gorrian ezari.

Aita eta ama familiazko balinbagira, nahi guntuke goure haurrak eraikirik eskoletan goure erreligioniazen amorioan eta errespetian; aldiz, nahi badugu zerbait eskola ukhen dezen, behar dutugu ezari zounbait gunetan, errejent edo errejentsa eli baten eskupian, zouñ haien aitzinian trufakuto eta gaizk mintzatuko beitira erreligioniaz; errejent edo errejentsa elibaten eskupian, zouñ uduri ezpeikun tuke nahi ihoulaz ere ikhousi goure seme eta alhabak, hañ

beitira greüthgarri beren elhetan, beren egitatetan, beren konduta guzian!

Legarrak phakatzén dutugu, eta nahi gunuke, legar hartarik, orai artino bezala aphezek ukhen dezen Frantziak kontratuz zor deien phakamentia. Bena *libres-penseurs* hoiek egin legiaren izenian, goure sosa joanen da, milioukaz treate tzar edo Jinko gabeko eskola handi elibaten gastietarat, goure haurrek ez guk ezpeitugu egundano lekhu haietan zankhorik sarthuko ere; aldiz, goure aphezak beharko dutugu hebenharat phakatu gihaurek, legarrez kampo, ezpazira nahi bizi eta hil goure kabaliak bezala.

Aphezen kolejioetan eskolak egin dutugia eta nahi gireia tropetan aitzindari igaran edo goure jakitatiari doan zerbait kargu handitan sarthu? *Libres-penseurs* hoiek egin legiak ezarten deiku, goure aitzinatziaren traba bezala, goure gogoko den errelijonia; goure errelijoniak aitzindarigoa suerte ororen bidia osoki zerratzen deiku. Gisa oroz zaphaturik izatia, horra goure zorthia.

Izaten ahal deia kountzentzien zaphatze edo tyranokeria hastialgarriagorik, *libres-penseurs* dielaok hoiek legian ezari dien hori beno?

Urhentzian, dugu eman istoria bat *Baionaren* eta *Bordeleren* artian agitu dena. Burduñ bidian, berkarrouchan bidajazen ziren, gai batez, langile bat eta *libre-penseur* delako bat. Ukhuragia batetan, ikhousi zien eraisten aphez bat, eta langiliari erraiten deio bestiak: «Zertako houn dira holakoak?»


Treña heltu zen izeiru oihan baten erdiala, eta han, langiliak ihardetsi zeion: «Jaona, etchiak hebentik hurruntutzu, lekhu hao hanitch basa duzu, gaia beltz, ulhuna hanitch tink; aisa ahal zintiroket heben, tchitcha bat bezala, ehaiten. Zoure arrobatzia eta zoure khorpitzaren borthari behera lerraeraztia elukezu ez luze, ez gaitz; Bordelen houlako bankan eraiki tuzun hoge eta hamar mila liberak eniak lutu-

ketzu... Bena eztezazulaukhen beldurrik. Aphezek erakatsi ditadaziet Jinko bat badela gaiza gordenak ikhouston tiana, eta harek debetatzen diala ihoure n ehaitia edo arrobatzia.

Orai ikhouston duzia, zertako houn den errelijonia, eta zertako houn diren aphezak? »



MILIOUEN DANTZA



EZTA mundu guzian populu bat guk bezan beste legar phakatzen dianik, ez eta guk dugun bezalako zor handiaren pian zaphaturik denik. Gaiza horrek ezkutu behar estonatu; Errepublika gorriak, batere gerla handirik gabe, emendatu dutu, hogei eta hamar ourthe hountan, Frantziako despendioak, aitzinetik ziren *hirour* phartetarik *batez beno haboro*.

Errepublika houna, Errepublika chouria, bozketan egotchirik izanzenian 1876^{ian}, Frantziako despendioak heltzen ziren *bi miliart bost ehun eta hogei eta zazpi milioutara*; orai heltzen dira *lau miliartetara*; horrek erran nahi beitu *lau aldiz hamar ehun miliou*; eta nourk eztaki *miliou bakhotchak* badiala *hamar aldiz ehun mila libera*?

Emperadore zenaren photeriaren azken ourthian *miliart bat zazpi ehun eta berrogei miliou* ziren Frantziako gastiak oro.

Zertarik jiten da jauzi handi hori? Ehi da borogatzia. Ditzagun erakouts goure miliouek hartzen dutien ardurako bidiak;

Diharutze handia badoa kargulanten sakoletara. Dudarik ezta, kargulanten beharra badela nazione batetan; bena doian izan behar die; doian beren

phakia eman behar zaie, ahalaz justoki, beren lanaren grado, beren kargiak galthatzen dian heñaren grado. Hala othe da egunko egunian?

Ez hullan ere. *Louis Philippe* errege zelarik, kargulantak oro *ehun eta lauetan hogei eta zortzi mila ziren*; chourien Errepublika demboran *berrehun eta hamar mila*; orai aldiz badira *lau ehun eta hamar mila*; kolonietakoak orano bestalde. Arren, armadan soldado bezañ beste, badira Frantzian kargulantak.

Eta kargulant haietan zounbat eztira batere lanik egiten eztenik, ohian berant egon, paseia, kartakan ari, edari houn edan, bouchi hounik jan, jente chehiari goratik so egin, doidoia sinadura bat edo beste eman, eta mila lusekoak holachek irabazten beitutie! Ber demboran badirateke kargulant chehe aldia bat, zinez eñhe behar beitutie, zinez nekatu, lanian beren indarra edo osagarria higatu, zounbait aldiz bizia erriskian ezari, phaku tchipi ez deus elibaten truku!

Eta beren kargu goretara heltzeko, zer zuzen zien hanitch kargulant handik? Edo berak edo beren askazi batek zinez beren bozketan egin ahala, chouri houn zounbaiten, errelijioniaren adiskide hounen egotcherazteko deputatu-goatik, zenatur-goatik, *conseiller général* edo *conseiller d'arrondissement* dielako kargietarik. Horra zuzen bakhotcha zouñen truku hanitch kargulant handi egunko egunian heltzen beitura lanik gabeko soldata eder elibatetara.

Aldiz, kargulanten erdiarekin hobekiago joan litazke Frantziako egitekoak eta legarrak zinez tchipi ahal leizkegie.

Beste gisaz ere dantzatzen dira Frantziako miliouak. Ministroek, beren adiskidiak ahal oroz gizenterazten dutie. Noula hori? Armadako eta marinako, tresna suerte hanitch behar dira. Tresna haien egiletarik badira saldo bat, egun, zakhurrek bezañ beste ere kontzentzia ezpeitie. Zakhurrek ezte batere, bena

eginik zaien hounkiaren eskerra aments kharreiatzen die. Gorago aiphatu gizonetan ezta holakorik.

Diala berri orano, agitu dira gerlako ountzietan destorbu eli-bat, mekanikak lehertu direlako agiturik. Mekanika hourak goure ministroek phakutzen zutien hanitch khario, ber motakoak beste erresoumetan phakaturik diren beno hanitchez kharioago; aldiz berhala higaturik dira eta, nouiz edo nouiz, haien lehertziak, gizon zounbait eho dutu.

Arhinkitto ere, dembora batez, armadako gizonen hazkurriak, kontrolio eskazekin, hounetako erosirik izan dira, ountsa phakaturik, gobernamentiaren adiskide elibati. Frantziaren eskuñeko mugetan, judio tratalant batek saldu zutian behi elibat, tatchaturik goure soldadoentako; eta ezpalinbazen gune haietako iaun bat zinez burhagertu, judioak sos ederrik egin zukian goure soldadoen osagarriaren khostuz.

* *

Goure ministroek orano, beren plazeretan eta beren burien ouhouraerazteko, diharutze handia igorten die. Orano berriki, ministro gunian *Pelletan* framazoua. Jaun horrek, eliza saihetseko ezkontzetarik bat egin, eta, joan zen, goure gerlako ountzi batetan, bere lagunarekin itchasoan paseiu baten egitera, *Algérial*a artino.

Ezta iganterik igaraiten, noun eztiren ministro bat edo biga, haboro ere zounbait aldiz, joaiten bestakatzera goure khostuz, hiri hoietara.

* *

Errelijioniari eginik den gerla ere zerbait khosta zaie goure gobernazaler.

Fraiden eta seroren hountarzunak ebatsirik eta sal-erazirik, eztira heltzen saltzopen hoietan jalkhi sosetarik, lan hortako erabili dutien kargulanten eta egin behar izan zaitzen gastien phakatzekoaren ere juntatzera.

Orano berriki *M. Caillaux* ministro moltseroak galthatu dutu *hirour miliou eta erdi*, igaran ourthian, *eliza ikhertzetan* egin dutien gastien phakatzeko. Erran gabe doa hirour miliou horik, ourtheko kountietarik berhez eta haborokin direla. Balio beitzian, goure deputatiek eta zenaturek egin lezen holako lege okherra, hainbeste nahaskeria Frantzian ezari diana, hainbeste kargulant, jandarma eta soldado zotukae-razi tiana.

Erakasteko! errelijioniari eginik den gerla, khario jiten zaionez Frantziari, aipha ahal gintzazke arimer errelijione gabiak egiten dutian damiak; aipha ditza-gula berbera *miliouen dantzak*.

Fraidiak, serorak, haien eskolak, ez ziren deusere khostatzen legarrari; hourak khien eta gobernamentiak legarren gañ ezarten dutu, haien ordari ezari dutian eskola-etche, errejent eta errejentsak. Eta zer eskolak beitira! Zer eskolazaliak!


Serorek eritegietan ez zien phaku handirik hartzen; hourak ospitaletarik khien eta haien ordariak eta noulako ordariak guneka! hirouretakoaz, lauetaoaz kharioago jiten zaitzo gobernamentiari.

Aphezak, aphezakupiak, Elizaren hountarzunak arroba, eta, aberatsago othe da gobernamentia? Tchipituko othe deizku legarrak? Baluke bai zertaz tchipi, ebatsi dutian miliou saldoan. Bena badie beste arrankurarik goure gobernazalek; beren eta beren adiskiden gizenterazia presago die.


Nourk eztaki goure lege-egilek badakiela goure sosen beren sakoletarat chuchen helerazten? Zer *miliou dantza-erazliak*, jaun horik, *bederatza mila liberetarik*, *hamabostna mila liberatara*, beren soldata goratu beitie!

Zer soldata ederra, bost edo sei hilabeteren lanarentako eta zer lana beita, *miliouen dantza-eraztia!*

Eia badakikegunez guk ere *jaun hoiien eta beren adiskiden dantza-erazten bozka egunak jinen direnian?*



ISTORIA ETA ERASI



SANTA-GRAZTAR emazte bat joan zen, etchez etche, astotto batekin, bere alhabaren ezteietarat adiskiden khumitatzera. Etche bakhotchian sar, eta herriko ahaire berheziarekin : « Jinko hounak deiziela egun houn » . — « Bai, zouri ere . » — « Houna nunduzun, alhaba abiatzen beitzetadan chimingouillatzera, jinen zinenez jestoetara . » — « Ez ja elizala, hurrunegi beita . » — « Arren jatekala . » — « Iseiatuko nuzu hartara . » — « Arri astoa beste borthala . »

— Garindañen, Santa Graziko seme bat mithil zen. Bere jakitatiaren gradoko ofizio bat eman zeien eta ezari zien ourdain. Egun batez, aizoko tcherrama bat sarthu zen bere humekin, goure Santa-Graztar mothikoaren nausiaren lurretan. Badoa potikoa lasterka aizoala, hel bezain sarri oihuz plañu bat bezala egiten du hirour aldiz : « Heei ? Heei ! Heei ! » — Leihoetara agertzen zaitzo bost andere. Sor-herriko moudala, ahairiarekin erraiten deie : « Jinko hounak deiziela egun houn . » — Anderiak soz ichil, ichilak. « Nikolas ene nausiak igorten deizie moussoui tchipi hoier ezar dezezien arkanjelutto bedera ; moussoui amari aldiz zartzandelatto bat . » — Andezek : « Zer diok ? » — Ez zidieia Uskaldunak ? » Eta beste adiorik gabe hortan joan zen.

— Praube Santa Graztar bat ari zen unguru baten egiten, ogi berrietan, Altzurukuko herrian. Etche batetarik amouina ukhen eta bazoalarik, ikhousten du gathu bat bizkarra sutan zuburietan gara heltzen sabaiaren borthala. Gizonttoa utzultzen da sukhaltiala eta erraiten dere etche hartako jenter, Santa-Graziko moudala : « Jente hounak, girgimaoua badouela eskandalak gora projet borthari buruz sustantzia bizkarrian; abundantzia ezpada jiten, kinkimaillak berotuko direla. Eta ni banouela. » Barnekoek ez zien deusere enthelegatu, uskara hortan, haboroziz Garindañeko anderek, eta gaian berian etchia erren, abundantziaren (erran nahi da hourraren) faltaz eta kinkimaillak (erran nahi da sagiak) ountsa berotu ziren.

*
*
*

— Santa Graztar atcho chahar bat joan zen behin pettariala bere alhaba miskandi baten ikhoustera. Heltzian erran zeion buruzagisari : « Noula zira, etcheko-andere houna? » — « Ountsa eta zu? » — « Ni ere bichtor bai; eta noula duzu zoure khurutchia? » Etcheko-anderiak so bat mantetchian dian kurutchiari egiten harriturik eia hautserik zenez. Santa-Graztar emaztettoak erri bateki erraiten deio : « Santa Grazian gizounak ditizugu deitzen khurutchiak. »

*
*
*

— Katichiman haur bati Jaun erretorak galthatzen deio : « Zounbat sakramentu dira? » — Haurrak : « Jauna orai eztuzu haboro batere; goiz hountan, Jaun bikariak eman titzu azkenak, Phetiri Etchebarnekoari. »

*
*
*

Haur bat nigarrez utzultzen da katichimatik etcherat. Amak : « Zer duk, haurra, hola nigar egiteko, arauz ehakian letzionia, apheza khecha-erazi

duk. » Haurrak : « Janartorak galthatu ditadazut zounbat Jinko den eta erran beiteiot bazirela hirour, khechatu zitadazut ; arauz etziozun aski hiroureki. »

*
*
—

Ostatu batetan, mouda berriko errejent gazte batek zioan : « Ni, eniz joaiten kofesatzera, ezpeitut bekhatu egiten. » Etcheko-jaun fededun batek ihardetsi zeion bere chokhotik : « Jaun errejenta, bi suertetako dutuzu bekhatu egiten eztiadak : edo eztiadie orano enthelegurik edo ukhen ziena galdurik dizie. »

*
*
—

Aphezer lan guti emaiten dian jaun bat ari zen erraiten sobera aphez badela. Nourbaitek galthatzen deio : « Zounbat dira? Badakizia zounbat diren? » — Bestiak : « Ez. » — « Zounbat behar lizate, zoure uduriala, aski izateko? » — Bestiak : « Eztakit ori. » — « Arren ezpalinbadakizu ez zounbat diren, ez zounbaten beharra lizatekian, noulaz dakizu badela sobera? »


*
*
—

— Laborari biarnes bai, tripakoz beno tripaz hobeki zen bat, agitu zen Paue ondo hortan Henri IV erregiareki. Erregiak, haren gizenaz trufa egiteko erraiten deio : « Errak to apetitia houn duka? » — Biarnesak gozoki : « Jauna, zouñ nahi lau gizon, lau jale hoberenek bezainbeste jaten dit nihaurek. » — « Eta egiten duka lau gizon bezainbeste lan? » — « O ez jauna, enirokezu. » — Erregiak erriz . « Arren, merechi huke bourreuak urkha hezan, ezi ene sujetak oro hi uduri banuntu, erresouma bertan jan liroiek. »



MAIATZA edo EPHAILA


Eg. luzatzen dira oren eta laordenez




- ☽ l. l., 5ⁿ, goizeko 10^{or} eta 28^m.
- ☾ e. b., 13ⁿ, arratseko 8^{or} eta 10^m.
- ☿ a. l., 21ⁿ, gaiko oren eta 36^m.
- ☼ g. b., 28ⁿ, goizeko 3^{or} eta 55^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA


Eg. Iluz. dira oren et 1/4, 22^a drano.




- ☽ l. l., 3ⁿ, goizeko 10^{or} eta 53^m.
- ☾ e. b., 11ⁿ, goizeko 8^{or} eta 15^m.
- ☿ a. l., 19ⁿ, gaiherdi eta 17^m.
- ☼ g. b., 26ⁿ, goizeko 3^{or} eta 15^m.



1 Astelehen.	J. Filipeet Jak. Ap.	1 Ostegun.	s. Kler.
2 Asteharte.	s. Atanasi.	2 Ostirale.	s. Poteñ.
3 Astizken.	Da Khurutze.	3 Neskanegun.	J. BIHOTZ SAK.
4 Ostegun.	sa Monika.	4 Igante.	PHENTEKOSTE.
5 Ostirale.	s. Pio V.	5 Astelehen.	s. Bonifazi.
6 Neskanegun.	J. Johane Eb. B. L.	6 Asteharte.	s. Norbert.
7 Igante. 3.	s. Stanizlaz.	7 Astiz. <i>VTh.B.</i>	s. Majan.
8 Astelehen.	J. Migel. agert.	8 Ostegun.	s. Medart.
9 Asteharte.	s. Gregori Na.	9 Ostir. <i>VTh.B.</i>	sa Pelajia.
10 Astizken.	s. Antonen.	10 Nesk. <i>VTh.B.</i>	sa Margarita.
11 Ostegun.	s. Oriens.	11 Igante. 1.	TRINITATE.
12 Ostirale.	s. Nere eta Akil.	12 Astelehen.	s. Johane Fr.
13 Neskanegun.	s. Jenio.	13 Asteharte.	s. Antoni Pad.
14 Igante. 4.	<i>Johane Sala, d.</i>	14 Astizken.	s. Basila.
15 Astelehen.	s. Eutrope.	15 Ostegun.	BESTABERRI.
16 Asteharte.	s. Johane Nep.	16 Ostirale.	s. Franzes R.
17 Astizken.	s. Paskal.	17 Neskanegun.	s. Avit.
18 Ostegun.	s. Venanzio.	18 Igante. 2.	sa <i>Marina.</i>
19 Ostirale.	sa Pudenziana.	19 Astelehen.	s. Jervasi eta Prot.
20 Neskanegun.	s. Bernardeñ.	20 Asteharte.	sa Julieta Falk.
21 Igante. 5.	s. <i>Petiri Zel.</i>	21 Astizken.	s. Louis Gonz.
22 Astelehen.	sa Kiteria.	22 Ostegun.	s. Pauleñ.
23 Asteharte.	s. Ubalde.	23 Ostirale.	J. BIHOTZSAK.
24 Astizken.	A. B. Laguntz.	24 Neskanegun.	J. JOHANE BA.
25 Ostegun.	SALBATORE	25 Igante. 3.	sa <i>Eurosia.</i>
26 Ostirale.	s. Filipe Neri.	26 Astelehen.	s. Johane eta Paule.
27 Neskanegun.	sa M. Mad. P.	27 Asteharte.	s. Prosper.
28 Igante.	s. <i>Agosti.</i>	28 Astizken.	s. I:ene.
29 Astelehen.	s. Garzia.	29 Ostegun.	J. PETIRI eta P.
30 Asteharte.	s. Felis.	30 Ostirale.	J. Pholeren o:h.
31 Astizken.	sa Anjela.		




UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1^{ez}.


- ☽ l. l., 3ⁿ, eguerdi eta 20^m.
 ☾ e. h., 11ⁿ, arratseko 8^{or} eta 46^m.
 ☿ a. l., 19ⁿ, arratseko 11^{or} eta 43^m.
 ● g. h., 25ⁿ, goizeko 3^{or} eta 11^m.

AGORRILA


Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☽ l. l., 1ⁿ, eguerdi eta 27^m.
 ☾ e. h., 10ⁿ, arratseko 8^{or} eta 11^m.
 ☿ a. l., 17ⁿ, arratseko 10^{or} eta 18^m.
 ● g. h., 24ⁿ, goizeko 4^{or} eta 18^m.
 ☽ l. l., 31ⁿ, gaiko oreneta 44^m.




1 Neskanegun.	s. Tierri.	1 Asteharte.	J. Petiri katiet.
2 Igante. 4.	A. B. BIZITAZ.	2 Astizken.	s. Alfonso, Lig.
3 Astelehen.	s. Anatole.	3 Ostegun.	J. Ezteber. edir.
4 Asteharte.	s. Léon II.	4 Ostirale.	s. Dominiche.
5 Astizken.	s. Zirile eta Met.	5 Neskanegun.	A. B. Elhur.
6 Ostegun.	s. Trankile.	6 Igante. 9	/ K. Transfig.
7 Ostirale.	s. Marzial.	7 Astelehen.	s. Kajetan.
8 Neskanegun.	sa Beronika.	8 Asteharte.	s. Ziriako.
9 Igante. 5.	sa <i>Elisabet</i> , p.	9 Astizken.	s. Jermeñ.
10 Astelehen.	Zazpi anaie m.	10 Ostegun.	s. Laorenz, m.
11 Asteharte.	s. Pio.	11 Ostirale.	s. Tiburze.
12 Astizken.	s. Johane G.	12 Neskanegun.	sa Klara.
13 Ostegun.	s. Anaklet.	13 Igante. 10.	sa <i>Radegonda</i> .
14 Ostirale.	s. Bonaventura	14 Astelehen.	s. Eusebi.
15 Neskanegun.	s. Johane Maj.	15 Asteharte.	A. D. M. ZBUJALA.
16 Igante. 6.	A. D. M. KARM.	16 Astizken.	s. Rok.
17 Astelehen.	s. Aletsis.	17 Ostegun.	sa Emilia.
18 Asteharte.	s. Kamille.	18 Ostirale.	sa Elena.
19 Astizken.	s. Bizente Paolo.	19 Neskanegun.	sa Filomena.
20 Ostegun.	s. Filibert.	20 Igante. 11.	s. <i>Bernat</i> .
21 Ostirale.	sa Pratseda.	21 Astelehen.	s. Julien Lesk.
22 Neskanegun.	sa M. Madalena	22 Asteharte.	s. Ipolita.
23 Igante. 7.	s. <i>Apolinari</i> .	23 Astizken.	s. Filipe Ben.
24 Astelehen.	s. Henrik.	24 Ostegun.	J. BARTOL., ap.
25 Asteharte.	J. JAKOBE, ap.	25 Ostirale.	s. Louis erreg.
26 Astizken.	sa Aña.	26 Neskanegun.	s. Filibert.
27 Ostegun.	s. Galatori.	27 Igante. 12.	A. B. Bihotz.
28 Ostirale.	s. Nazari eta Zelze.	28 Astelehen.	s. Agosti.
29 Neskanegun.	sa Marta.	29 Asteharte.	J. Joh Lephom
30 Igante. 8.	s. <i>Abdon</i> .	30 Astizken.	sa Rosa, Lima.
31 Astelehen.	s. <i>Inazio Loiola</i>	31 Ostegun.	s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER


Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- ☉ e. h., 8ⁿ, arratseko 6^{or} eta 52^m.
- ☽ a. l., 15ⁿ, arratseko 9^{or} eta 36^m.
- ☀ g. h., 22ⁿ, goizeko 4^{or} eta 16^m.
- ☾ l. l., 30ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 35^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☉ e. h., 8ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 43^m.
- ☽ a. l., 14ⁿ, arratseko 9^{or} eta 37^m.
- ☀ g. h., 22ⁿ, goizeko 6^{or} eta 43^m.
- ☾ l. l., 29ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 21^m.



1 Ostirale.	s. Bizente, ap. m
2 Neskanegun.	s. Eztebe, erreg
3 Igante. 13.	s. <i>Lixier.</i>
4 Astelehen.	sa Frantzes, Ch.
5 Asteharte.	s. Laorenz J.
6 Astizken.	s. Onesiforo.
7 Ostegun.	s. Zebero.
8 Ostirale.	A. B. SORTZIA.
9 Neskanegun.	s. Omer.
10 Igante. 14.	A. B. <i>Izen Saint.</i>
11 Astelehen.	s. Hiazinte.
12 Asteharte.	s. Gi.
13 Astizken.	sa Ujenia.
14 Ostegun.	D ^{na} Khurutze.
15 Ostirale.	s. Nikomede.
16 Neskanegun.	s. Ziprien.
17 Igante. 15.	A. B. <i>Dolor.</i>
18 Astelehen.	s. Jusef Kup.
19 Asteharte.	s. Janvier.
20 Astiz. <i>IV Th. B.</i>	s. Estache.
21 Ostegun.	J. MATHIU, Eb.
22 Ostir. <i>IV Th. B.</i>	s. Maur.
23 Nesk. <i>IV Th. B.</i>	sa Tekla.
24 Igante. 16	A. B. <i>Librazalia.</i>
25 Astelehen.	s. Aostinde.
26 Asteharte.	s. Tomas Vil.
27 Astizken.	s. Kosme eta Dam.
28 Ostegun.	s. Faoste.
29 Ostirale.	J. MIGEL, ark.
30 Neskanegun.	s. Jeronimo.

1 Igante. 17	ARRUSARIOA.
2 Astelehen.	Ainguru beg.
3 Asteharte.	s. Denis, Ar.
4 Astizken.	s. Frantzes, As.
5 Ostegun.	s. Venzeslaz.
6 Ostirale.	s. Bruno.
7 Neskanegun.	s. Fide.
8 Igante. 18.	A. B. <i>Amalarz.</i>
9 Astelehen.	s. Denis.
10 Asteharte.	s. Frantzes B.
11 Astizken.	sa Sabina.
12 Ostegun.	sa Daonina.
13 Ostirale.	s. Edouar.
14 Neskanegun.	s. Kalista.
15 Igante. 19	A. B. <i>Garbitarz.</i>
16 Astelehen.	s. Beltran.
17 Asteharte.	sa Edvije.
18 Astizken.	J. LUKAS, Eb.
19 Ostegun.	s. <i>Grat.</i> Olor.
20 Ostirale.	s. Johane K.
21 Neskanegun.	sa Ursula.
22 Igante. 20.	A. B. <i>Patron.</i>
23 Astelehen.	s. Leotade.
24 Asteharte.	s. Rafael, ark.
25 Astizken.	s. Krispi.
26 Ostegun.	s. Evarista.
27 Ostirale.	s. Fronton.
28 Neskanegun.	J. SIMOUN, ap.
29 Igante. 21.	sa <i>Eusebia.</i>
30 Astelehen.	s. Kazien.
31 Asteharte.	s. Zirizio.




AZAROA edo GOROTZILA
Egunak llaburtzen dira orenez.

- ☉ *e. b.*, 6ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 25^m.
- ☽ *a. l.*, 13ⁿ, arratseko 11^{or} eta 29^m.
- ☀ *g. b.*, 20ⁿ, goizeko 2^{or} eta 55^m.
- ☾ *l. l.*, 28ⁿ, arrastiriko 1^{or} eta 22^m.

ABENTIA edo NEGILA
Eg. llaburtzen dira 27^{min}, 22^{no}

- ☉ *e. b.*, 6ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 3^m.
- ☽ *a. l.*, 12ⁿ, arratseko 11^{or} eta 53^m.
- ☀ *g. b.*, 31ⁿ, goizanko 8^{or} eta 10^m.
- ☾ *l. l.*, 28ⁿ, goizanko 11^{or} eta 56^m.




1	Astizken.	DONISANTORE.
2	Ostegun.	<i>Purg. Arimak.</i>
3	Ostirale.	s. Zebero.
4	Neskanegun.	s. Charles Bor.
5	Igante. 22.	<i>Errelikia s^k.</i>
6	Astelehen.	s. Léon, art.
7	Asteharte.	s. Florent.
8	Astizken.	Lao Martirak.
9	Ostegun.	s. Teodoro.
10	Ostirale.	s. Andreu Av.
11	Neskanegun.	J. MARTINE.
12	Igante. 23.	ELIZEN SAKR.
13	Astelehen.	s. Didazi.
14	Asteharte.	s. Josafat.
15	Astizken.	s ^a Jertruda.
16	Ostegun.	s. Edmon.
17	Ostirale.	s. Gregori T.
18	Neskanegun.	s. Odon.
19	Igante. 24.	s ^a <i>Elisabet Ong.</i>
20	Astelehen.	s. Felis, Valesi.
21	Asteharte.	<i>A. B. Eskentzia</i>
22	Astizken.	s ^a Zezila.
23	Ostegun.	s. Klement.
24	Ostirale.	s. Johane Kh
25	Neskanegun.	s ^a Katalina.
26	Igante. 25.	s. <i>Petiri, Alek.</i>
27	Astelehen.	s. Maxime.
28	Asteharte.	s. Maorino.
29	Astizken.	s. Saturni.
30	Ostegun.	J. ANDREU, Ap.

1	Ostirale.	s. Eloi.
2	Neskanegun.	s ^a Bibiana.
3	Igante.	ABENTUKO 1 ^a .
4	Astelehen.	s ^a Barbara.
5	Asteharte.	s. Sabas.
6	Astizken.	s. Nikolas.
7	Ostegun.	s. Ambrosi.
8	Ostirale.	A. B. KONTZEP.
9	Neskanegun.	s. Jeronze.
10	Igante.	<i>Abentuko 2^a.</i>
11	Astelehen.	s. Damasio.
12	Asteharte.	s. Melkiade.
13	Astiz. <i>V T.</i>	s. Valeri.
14	Ostegun. <i>~</i>	s. Arzene.
15	Ostir. <i>V T.</i>	s. Mismeñ.
16	Nesk. <i>V T.</i>	s. Euzebio.
17	Igante.	<i>Abentuko 3^a</i>
18	Astelehen.	s. Gazieñ.
19	Asteharte.	s. Urbeñ.
20	Astizken.	s. Liberat.
21	Ostegun.	J. TOMAS, Ap.
22	Ostirale.	s. Flavieñ.
23	Neskanegun.	s. Onorat.
24	Igante.	<i>Abentuko 4^a</i>
25	Astelehen.	EGUBERRI.
26	Asteharte.	J. EZTEBE, m
27	Astizker.	J. JOHANE, Eb.
28	Ostegun.	Haor In ozent
29	Ostirale.	s. Tomas Kant.
30	Neskanegun.	s. Manzuet.
31	Igante.	s. Zilbestre.



OURTHEKO HAROAK :


BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an.}
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an.}
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an.}
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an.}




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruila 6ⁿ ; abentu 10^{ik} landanko astehartian. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphilil. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOKOUN : **m.**, ostir. *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I. Legia lege	73
II. Amerika eta hiriak utzirik, hobe dela sor-lekhian egoitia	79
III. Nahi dudanaren gogoan eroaitera haizu niz.....	82
IV. Miliouen dantza.....	90
V. Istoria eta erasi.....	94

